

KULTURA

Garde, Ybarra eta Olarra, Euskadi Literatura saridunak euskara, gaztelania eta itzulpengintzan

Luis Garde Iriartek jaso du euskarazko Euskadi Literatura saria, 'Ehiztarien isilaldia' lanagatik, Gabriela Ybarrak gaztelaniazkoa, 'El comensal' liburuagatik, eta Xabier Olarrak itzulpengintzari dagokiona, James Joyceren 'Ulises' euskarara ekartzeagatik.

NAIZ | DONOSTIA | 2016/10/19 10:02 | 0 IRUZKIN EGUNERATUA: 11:20



Xabier Olarra, Gabriela Ibarra eta Luis Garde, Joxean Muñoz sailburuordearekin. (ARGAZKI PRESS)

Euskadi Literatura sarietan falta ziren ataletako irabazleen berri eman du gaur Donostian Joxean Muñoz Lakuako Kultura sailburuordeak.

Euskarazko literaturaren alorrean Luis Garde Iriarte iruindarrak eskuratu du saria, *Ehiztarien isilaldia* (Pamiela) eleberriagatik. Ezkabako presondegiko ihesaldia bi azpinobelaren bitartez kontatu du Gardek eta 1938ko gertakari hura gaur egunera arte ekarri du.

Gaztelaniazko literaturan Gabriela Ybarra bilbotarra izan da irabazlea, *El comensal* (Caballo de Troya) lanagatik.

Itzulpengintzan, azkenik, Xabier Olarra tolosarrak jaso du saria, James Joyceren *Ulises* euskarara ekartzeagatik.

Lehen bi saridunek 18.000 euro jasoko dituzte, eta beste 6.000 euren lana beste hizkuntzaren batera itzultzen bada. Olarrak, berriz, 18.000 euro jasoko ditu.

Sariak azaroaren 17an banatuko dituzte San Telmo museoan.